

OINHERRI

OINHERRI egitasmoa 2012an sortzen da, Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra izenpean. Bertan kolore anitzetako eragileak elkartu ginen, guztiok haurren aisia eta hezkuntza beste modu batera egin zezakeela amesten genuelako, herrigintzatik eta benetako parte hartzea bermatuko lukeen aisia eredu hezitzailetik.

Herri hezitzaile eta parte hartzaile baten inguruko hausnarketak, ekimenak eta hainbat praktika egiten ari gara Euskal Herriko zenbait eragile, hala nola, **Irrien Lagunak Kluba, HUHEZIKo Sorguneak ikertegia, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Arremanitz, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Euskararen Topagunea, Ikastolen Elkarteko aisialdi-taldea, Urtxintxa Bizkaia, Urtxintxa Gipuzkoa, Amarauna, Tabakalerako hezkuntza saila, Elgoibarko Izarra Euskara Elkarte, Pil-pilean elkarte, Ttakun kultur elkarte eta Hik Hasi heziketa egitasmoa.**

Aipaturiko eragile horiek guztiak elkartu gara haurrentzako, gazteentzako, eta, oro har, herritar guztientzako egokiak diren herriak eta hiriak pentsatzeko, eztabaidatzeko eta hainbat urrats emateko. Herri Hezitzailea egitasmo honen babesle nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia izan da, Eusko Jaurlaritzak ere laguntzen izan duelarik.

Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

*Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura** aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea**; eurek eraikitako **aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala eta kulturala** zainduz, **komunitate-sarea eta auzolana indartzea**, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.*

IBILBIDEA

Ibilbidearen lehen pausuak Tonuccirekin batera egin genituen, "Haurren Hiria" liburua euskaratu eta hau bideorri gisa erabiliz, esperientzia desberdinak ezagutu eta ezagutzera emanez, 2013an antolatutako "I. Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra" jardunaldietan gauzatu zena.

Bidean aurrera egin genuen, eta iada 13 eragile hasi ginen elkartzen OINHERRI gisa izendatu genuen gure taldean. Herrietatik, elkarteetatik, erakundeetatik gogoz hartu zuten gure lan taldearen berri, eta gure pentsaerarekin bat egiten zuten lagun mordoxka bat hurbildu zitzaigun, momentu honetan 16ra iritsiz.

Honi erantzun beharra zegoen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginiko hitzarmen bati esker hiru lan ildo definitu genituen 2015erako. Alde batetik bigarren **jardunaldiak antolatu**

genituen, **“II.Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra”**, Finlandiako hezkuntza eredia ezagutu eta gure ingurune hurbilean martxan geneuzkan egitasmoak ezagutzeko.

Bigarren lan ildoak Euskal Herri Hezitzailearen lehen pausuak definitu zituen, **“Herri Hezitzaileen” bidea. Baigorri, Baztan, Agurain, Dima, Otxandio, Egia, Arrasate eta Soralezeko** herritar, udal eta ikastetxeekin elkarlanean hasi ginen, hurrekin asanbladak eginez, nerabeei galdetuz, eta tokian tokiko prozesuak martxan jarritz.

Azken lan ildoak **formazioan sakontzekoa** izan zen, teoria eta praktika uztartzeko asmoz sorturiko **liburuxka sortaren** bitartez.

1. Haurren aisialdi parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen. (Lorea Agirre)
2. Nola sustatu haurren parte hartzea ikuspegi feministatik. (Urtxintxa Bizkaia)
3. Nola egin udaleku parte hartzailea.(Amarauna Aisialdi Elkarten sarea)
4. Nola egin ludoteka parte hartzailea. (Txatxilipurdi Elkartea)
5. Parkeak bizitzeko modu berriak. (Txusma Azkona eta Alfredo Hoyuelos)

HEZITZAILEENTZAKO FORMAZIO SAIOAK: Azaroak 14

Aurten Hik Hasirekin batera antolatutako “II.Herri Hezitzailea, Eskola Herritarra” jardunaldietan teoria eta praktika uztartzen zituzten liburuxkak aurkeztu genituen. Hauek herritar ororentzat jarri nahi izan genituen eskuragarri, haurren aisia eta hezkuntza beste modu batera egin daitekeela sinesten dugun herritar guztion eskura.

Azaroak 14an, TABAKALERAN (Donostia), OINHERRI osatzen dugun eragile desberdinok, **hezitzaileentzako formazio saioak** eskaintzera goaz, **5 liburuxketan azalduko gure oinarriak eta praktikak elkar banatzeko.**

Izen ematea iada irekita dago, azaroaren 5erarte OINHERRIren web gunean.

<http://eguz.weebly.com/>